
KONTALARITZA

PROPOSAMENAK ETA MATERIALAK

**NOLEGA PROGRAMAREN AHOZKO
ADIERAZPENA**

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK :

MATERIAL OSAGARRIAK



Montse Soria

Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria

KONTALARITZA NOLA LANDU ESKOLAN

Deialdien galdekizunetarik ateratako datuak

- Elkarrizketak aldatuz eta deskribapenak laburtuz
- Ipuinen atalak landu ariketen bidez. Gero bakoitzak berea sortu.
- Atalez atal laburtuz
- Taldeka lantzen dira ipuinak
- Moldatuak: testuak elkarrizketa erraza moduan jarrita.
 - Deskribapenak laburtuz
 - Espresio batzuk aldatu, erraztu
 - Narratzaileari zatiak kenduz elkarrizketei garrantzi gehiago emanez
 - Grimm anaien ipuinak hartu eta era adierazkorrean eta ulergarrian irakurtzek testua moldatu.
- Bertako hizkera emanez. Bizkaieraz moldatuta. Herriko ahoskera emanez
- Testuak ulertarazi eta pertsonaien ezaugarriez jabetuz eta indartuz.
- Ipuina asmatu eta ekintza bakoitzari musika tresna lotu
- Ipuina kontatu eta antzeztu dute

TESTUAK

- Ipuinak. Ipuin ezagunak. Ipuin klasikoak. Moldatuak. Asmatuak. Irakasleek prestatuta.
Ipuin tailerrean sortuak. Ume kopurua eta haurren gustuak kontuan hartuta.
- Gai aproposak eta erakargarriak
- Txiste
- Pasadizoak (Txiste eta pasadizoak, batzuk gaztelaniaz sortuak)
- Poesia

1. KONTALARITZA (Mintegian egindako eskema)	
ZER	<ul style="list-style-type: none"> • Herri ipuinak • Kontakizunak • Txisteak • Gertakizunak •
ITURRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurritako ipuina • Asmatutakoa • Olerki bat / kanta batean oinarrituta • Gure familiakoei entzundakoak (aitona, amona, maisua...) • Herrian gertatutakoa. Benetako gertaera bat. • Irratian entzundakoa • Beste herrietako ipuinak
EGOERAREN AZTERKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Nori zuzendua, non kontatua, • Tokia: gela, liburutegian, ... • Kontalariaren portaera: keinuak, mugimendua • Entzule taldearen tamaina: ez oso handia • Giroa: argia, musika, bestelako baliabiderik, jantzi bereziak, • Liburua, beste baliabiderik ? • Kontaketaren denbora
HIZKUNTZ BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hasierak: kokapena • Amaierak • Elkarrizketa • Onomatopeiak • Ahotsaren modulazioak • doinua, etenak, erritmoa • Ahotsa desberdinak nahastu (aldaketa pertsonaiak) • Euskalkia • Hika • Arreta deitzeko teknikak • Besteen parte hartzea sortzeko estrategiak
BESTELAKO BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Testuak bildu • Bideoak: A. Irusta, kontaidazu, Jasosch ... • Kanpoko kontalariak: aitona-amona, aita-ama, herriko jendea, ipuin kontalari profesionalak, ... • Eskolako kontalariak: irakasleak (beste geletakoak ere), ikasleak

KONTALARITZA	
ZEIN MOTATAKO TESTUAK	
Ipuin laburrak	<ul style="list-style-type: none"> • Eredu onak eman • Testuak bildu • Trebatu
Txistekak	
Gertakizunak	
Kontakizunak	
BESTELAKO BALIABIDEAK	Txotxongiloak Jantzi / objektu bereziak Musika / argia
EMANALDIA ETA GERO	
Ekitaldiaren bideo grabaketa	Zuzenketak / hobekuntzak egiteko geroari begira Eskolako bideo tegian gorde Etxera eraman senide eta lagunei erakusteko Beste mailetan ondorengo urteetan ikusteko
Eskolen arteko harremanak ekitaldia amaitu ondoren	<ul style="list-style-type: none"> - Gelen arteko gutunak (talde osoarena) - Kontaketaren grabaketa jaso - Kontaketaren laburpena: irudi esanguratsu bat egin eta bidali

KONTALARITZA	
<i>Isiltasuna edo giro aproposa izan arte ez da komenigarria hastea.</i>	
AGURRA/ KOKAPENA	<i>Egunon, arratsaldeon ... Kaixo lagunak, hemen nago zuei ipuintxo bat kontatzeko prest. Ipuin hau nire amonak kontatu zidan txikia nintzenean ...</i>
HASIERA EMAN	<i>Behin batez,... Askotan gertatzen den bezala, ... Bazen behin, ... Hemendik 2 minututara, ... Lehenik eta behin, ...</i>
ONOMATOPEIAK	<i>Oilarrak, kukurruku ...</i>
HARRIDURAZKO MAUKULUAK	<i>Alajaina! Alajainena! Alajainetan! Arraio! Arraioa! Arraiea! Demontre! Zer demontre gero!ai ene! Enebada! Gizajoa! Gizarajoa! Beno, beno!</i>
AMAITZEKOAK	<i>Hala bazan / ez bazan/ gezurra dela / niri ez esan Eta hori hala bazan, / sar dadila kalabazan / eta atera / gure herriko enparantzan. GAURKOZ, hau izan da guztia. Mila esker eta hurrengora arte</i>

Bibliografia osagarria: "AUTU-MAUTUAN" Antton Irusta, Gero 2001

IPUINEN HASIERAK (1)

<p>Behin batez,...</p> <p>Behin bazen,</p>		<p>Askotan gertatzen den bezala, ...</p>
<p>Aldi batez berria zabaldu zen</p>		<p>Deba inguruko etxe entzutetsu batean...</p>
<p>Zeruan urdina,</p> <p>Lurrean belarra,</p> <p>Hondartzan harea,</p> <p>Itsasoan ur tantak</p> <p>Eta nire ahoak ipuinak</p>		<p>Behin baziren Peru eta Marixe</p> <p>Haiek zeukaten erbi txikixe</p> <p>Ematen zioten aza berdie,</p> <p>Eta egiten zuen kaka berdie</p>
<p>Istorio hau haizeak kontatu zidan</p> <p>basamortuko oasi batean</p> <p>izarren artean</p> <p>lo egiten nuen</p> <p>gau hartan</p>		<p><i>Behin bazen gizon zahar bat, ipuin zahar hauek gogoan zituena. Egun batez, jakintsu ikertzaile bati kontatu zizkion. Hark ipuinak gordetzeko idatziz eman zituen....</i></p>

IPUINEN HASIERAK (2)

Munduan beste asko legez, artaburuak koskolez		Asko munduan bezala, ...
Hemendik 2 minututara, ...		Antzinako negu batean bost agure suaren inguruan bilduta zeuden kontu-kontari. Eskimal zaharrena ipuin bat kontatzen hasi zen.

IPUINEN AMAIERAK

<p>Haiek han eta gu hemen, gure kontuan Flandesen, gure txepetxak bizkarrean hezurra, eta gure ipuin guztia gezurra</p>		<p>Hala bazan eta ez bazan, Gu ibili gara kalabazan</p>
<p>Hau hola bazan, sartu dadila kalabazan, eta errementatu dadila Bitoriako plazan</p>		<p>Egia bada sakelan sar. Gezurra bada, ez golkoan har.</p>
<p>Geroztik pasatuez Ez dut esan berririk.</p>		<p>Hala zan, Deabru zaharra dantzan.</p>
<p>Hala bazan ezpazan,Bitoriko plazan, Saguzarrak dantzan</p>		<p>Ogi bizi izan baziren, ongi hil ziren. Orduan han nintzen, eta orain hemen</p>

ZENBAIT GOMENDIO:

- Ipuina kontatzailearen gustukoa izatea, dibertigarria, goza dezan ipuina transmititzea
- Mundu guztiak balio du ipuin bat azaltzeko, aldez aurretik prestatu behar da.
- Keinuak, begiak, eskuak,... denak balio du kontatzen ari garena espresiboago egiteko

LEHEN HEZKUNTZAN LANTZEKO ZENBAIT AUKERA:








- Ipuinen jantziak:
Nolako azalak ditu liburuak? Zer kontatzen digu azalak? Zer desberdintasun dago aurreko azalaren eta atzeko aren artean? Marrazkiak, letra asko ala gutxi ...
- Ipuinaren izaera:
Ipuin guztiak ez dira berdinak:
Sinesmen baten berri; mundua edo natura ulertzeko edo arrazoitzeko bide bat, mitoa; gertaera bat; elezaharra; ...
 1. Pertsonaiei buruz mintzatu
 2. Pertsonaiak marraztu
 3. Bestelako pertsonaiak irudikatu, gizakion lekuan animaliak ipiniz, ezaugarriak aldatuta, pertsonai berriekin irudizko ipuina sortu
 4. Gertalekua aztertu
 5. Ipuina beste leku batean kokatu
 6. Zenbait kontzeptu landu: koloreak, formak, espazioak eta denborak
 7. Amaierari eta hasierari begiratu: hitz jokorik edo formula jakinik...
- Ipuinaren gorputza:
Zer kontatzen digu?
Beste ipuin batzuetara eramango gaitu, herri do garai jakin baten oihartzuna ekarriko digu, edo beste nonbaiten entzundako kanta baten oroipena: kanta bat, herrialdea edo bidaia mapa bat...
- Ipuina lantzeko jolasak:
“Nahastu egin zara”
“Hemen dago”
Oinarriko hiztegia kartoietan jarri
Esaldien segmentazioa
Hitzen luzerarekin jolastu
Silaba berberaz hasten diren hitzak
Hitz multzoak
- Binomio fantastikoa

IPUINGINTZA – BIBLIOGRAFIA / MATERIALAK


<div style="text-align: center; border: 2px dotted blue; padding: 10px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <p>KUKUMAK O IPUINAK</p> </div> <p style="text-align: center;">Kukumako ipuinak, Batzuk (Liburua)</p>	<p>Aurkibidea:</p> <p><i>Aiorga ederra (Ertasiako Ipuina,) Jon Arretxe Hosto iharrak, Koldo Biguri Mossen Bernat 99, Itxaro Borda Argizarizko hankatxodun uso polita, A. Irusta Txakur eta zapaburuen istorio bat, J. Kalzakorta Joanes eta bioletaren panpina, M. Agur Meabe Letter bat, Xabier Olaso Isabela, Patxi Zubizarreta</i></p>
<div style="text-align: center;">  </div> <p style="text-align: center;">IPUINKARIA Patxi Zubizarreta (Liburua)</p>	<p><i>Negua da, negu gorria. Kanpoan oso eguraldi hotza eta desatsegina egiten du eta ikasleek, atsedendian, gela barrenean geratu behar izaten dute. Zer egin ez aspertzeko? Zergatik ez animaliei buruzko istorioak kontatu?, dio Estibalizek. Zergatik ez istorioak idatzi eta aldizkari batean bildu?, dio andereñoak. Eta ipuin eta aldizkari, ikasleek Ipuinkaria amaitzen dutenerako, udaberria izango da.</i></p>
<div style="text-align: center; border: 2px dotted blue; padding: 10px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <p>Mundu zabaleko ipuinak</p> <p>Mensajero</p> <p>(Liburua)</p> </div>	<p>- Mundu zabaleko 22 ipuin zaharren bilduma: <i>Afrikako ipuinak, Amerikako ipuinak, Asiako ipuinak, Europako ipuinak eta Ozeaniako ipuinak</i> - Lan libruska: <i>Zer dira ipuinak? Ipuinen funtzioa, Ipuinen sailkapena, Ipuin miresgarriak eta mitoak, ipuin miresgarrien egitura. Ipuin miresgarri baten lanketa</i></p>
<div style="text-align: center;">  </div> <p style="text-align: center;">1. AXA MIXA ZILARRA OLAIZOLA, J. M. / TXILIKU Elkar (Liburua)</p>	<p><i>Benetan gomendagarria da liburu berezi hau. Eskertzen da honelako liburuak gure eskuetara iristea. Irakurtzea eta aspertzea ez dira sinonimoak. Igarkizunak, ipuinak, kantak, hitz jokoak, aho korapiloak, jolasak, eta beste hainbat bitxikeria. Liburu hau ez da besteak bezalakoa, liburu hau euskaraz jolas egiteko.</i></p>

<p>2. MINTZO NAIZ IXILIK Juan Kruz Igerabide Elkar (Liburua)</p>	<p><i>Igarkizunekin jolasean</i></p>
<p>3. AIZAK ETA AIZAN Anjel Lertxundi Elkar (Liburua)</p>	<p><i>Elkarrekin Dantzan</i></p>
<p>4. ATXIKI SEKRETUA Patxi Zubizarreta Elkar (Liburua)</p>	<p><i>Sorginen eskuliburua</i></p>
	<p><i>28 ipuin barre egiteko</i> Ursula Wölfel Alberdania</p>
	<p><i>IPUINEN ZORROA,</i> Seve Calleja. Desclee</p>
	<p><i>Untzi zuria</i> Kalandraka</p>

 <p>AUTU-MAUTUAN, Antton Irusta. Gero</p>	<p>Aurkibidea: Kantuka Aho-korapiloak Onomatopeiak Harridurazko makuluak Haur-Hizkera Txotx ala motx Ipuinez- ipuin: hasierak, amaierak, ziklikoak, etiologikoak, han-hemengo ipuinak Herri esaerak. Sorginen eskauneak. Igarkizunak Zahar- berriak</p>
 <p>Ipuina lantzeko gida Antton Irusta eta Iñaki Frieria</p>	<p>Ipuina lantzeko gida <i>liburua</i>, "Liburuen xarma" bildumako laugarren zenbakia da. Bertan, ipuinak irakurtzeko eta sortzeko hainbat aukera eskaintzen dira: dela adibideak eskainiz, dela ariketak iradokiz. Irakasleak, liburuan eskaintzen diren ariketak pausuz pausu jarri ditzake.</p>
 <p>Poesia lantzeko gida Juan Kruz Igerabide</p>	<p>Poesia lantzeko gida <i>liburua</i>, "Liburuen xarma" bildumako bigarren zenbakia da. Bertan, poesia lantzeko hainbat irizpide azaltzen dira: bai poesia irakurtzeko, baita poesia idazteko ere. Irakasleak, bere ikasleengan poesiarenganako zaletasuna pizteko ariketak eta bideak aurkituko ditu liburuki honetan.</p>
<p>IPUIN KONTALARIA Egilea: SAKI (SEUD. DE MUNRO, HECTOR HUGH) Ediciones Mensajero</p>	

<p style="text-align: center;">  SEVE CALLEJA eta ANTTON IRUSTA Labayru (Liburua) </p>	<p><i>Liburu honetan Derrigorrezko bigarren Hezkuntzaren helburu orokor guztiak betetzen laguntzea da. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunak gehitzea, alderdi ludikoa eta sormenerako dituen ahalbideak oinarri hartuta.</i></p>
<p style="text-align: center;">  Eitb (DVD) </p>	<p><i>Aurkibidea:</i></p> <p><i>18 kontaketa pertsonai ezagunen eskutit. Besteak beste: , Pili Kaltzada, Andoni Egaña, Hasier Etxeberria, Kike Amonarriz, Aintzane Gamiz, Arantxa Irigoien ...</i></p>
<p style="text-align: center;">  Antton Hirusta Canal Bizkaia (Bideo grabaketa) </p>	<p><i>Deskripzioa:</i></p> <p><i>Antton Irustak egindako emanaldi saioen bilduma. Kontaketa laburrak, arinak, ... Baliabide teknikoak ez dira oso onak.</i></p>
<p style="text-align: center;">  Sara C. Bryant (Liburua) </p>	<p style="text-align: center;">  </p> <p><i>IRAZKI (asociacion multicultural de Tolosaldea)</i></p> <p><i>Kultura eta hizkuntza desberdinetako narrazioen bilduma. Narrazioak bertako hizkuntzan, gaztelaniaz eta euskaraz daude.</i></p>
<p style="text-align: center;">  (Liburua) </p>	<p style="text-align: center;">  Joxe Arratibel (Liburua) </p>

PELLO AÑORGA: kontalaritza lantzeko estrategiak



Kontuan hartzeko alderdiak:

AHOTSA

AHOSKERA

ERRITMOA: Haurrak erritmo berean sartzen ditugu.

ENFATIZATU: Hitza luzatu
 Erritmo aldatu
 Bolumena
 Errepikatu
 Sinonimoak erabili

EGOERA ANIMIKOA

Haurra gehiago ikusteko estrategiak, oinarrizko sentimenduak (maitasuna, beldurra, haserrea, tristura)

KEINUA (imintzioa)

BEGIAK

LIZENTZIA POETIKOA. TESTUARI ERANTZI ELEMENTUAK:

- Onomatopeiak
- Elipsia
- Egokitzapena
- Sinonimoak
- Abestiak (erritmoaren barruan)

ESPAZIO ETA DENBORA: ARRETA eskatzen du: Lehen ordua hartu, fresko gaudenean. Amaitu ondoren utzi denbora pixka jolasteko. EROSO sentitu: kojín batean eserita (nork berea du izena jarrita eta guztiz) edo alfonbran lurrean eserita. DENAK BERDIN, ez batzuk alfonbran eta beste batzuk aulkian. ZARATAK saihestu, galdu egiten dira, beraz tokia edo momentua aldatu. Begietatik ere dispersioa sor daiteke, kontuz aurrean dutenarekin (jostailuak, patioa,...) umeak objektu hauei bizkarra eman ez eseri eta kontalaria aurrez aurre izan behar dute.

GUNE RITUALA sortu: giltzak, ritoak, pautak erabili ipuinak hasteko eta amaitzeko. Pauta berak, ordu berean, hitzak, abestia, ...